

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Lezkairun eta Milagron babestutako 118 etxebizitza eskuratzeko epea zabaldu da

Abenduaren 18ra arte eskaera egiten duten babestutako etxebizitza-erroldan izena emandako pertsonak parte hartu ahalko dute

Lunes, 01 de diciembre de 2014

Nafarroako Gobernuak gaurtik aurrera, abenduak 1, eta hilaren 16ra arte, hiru sustapenetan banatutako babes ofizialeko 118 etxebizitza eskuratzeko epea zabaldu du: bi Lezkairun (105 etxebizitza) eta beste bat Milagron (13).

Eskuratzeko prozesu horretan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa da aurrez Nasuvinsa enpresa publikoaren [babestutako etxebizitza-errola bakar](#)rean izena emanda egotea.

Lezkairun eskainitako etxebizitzak ADANIA RESIDENCIALen bi sustapenei dagozkie. Sustapenetako bat alokairuan da, 51 etxebizitzarekin, eta bestea jabetzan, 54rekin. Milagron, guztiak erosteko dira.

Lezkairuko 51 etxebizitzetatik 50k bi logela ditu eta batek, lau. Jabetzan daudenetatik, 52k hiru logela dituzte, batek lau eta azkeneko batek logela bakarra. Lezkairuko etxebizitza guztiek garajea eta trastelekua dituzte.

Luis Martínez Benito sustatzaileak Milagron eskainitako hamahiru etxebizitzek hiru logela dituzte. garajearekin.

[Etxebizitzaren gaika](#)ko webgunean etxebizitzaren ezaugarriak zehaztasun handiagoarekin kontsulta daitezke. [Sustapena hautatzeko](#), ezinbestekoa da aurrez babestutako etxebizitzaren errolda bakarrean erregistratuta izatea. Sustapenaren hautaketa webgune bidez ere egin daiteke, ziurtagiri digitalarekin edo NANarekin edo Ogasunak emandako PIN pertsonalarekin.

Eskatzaileek adierazitako baremo nahiz lehentasunen ondoriozko hasierako esleipenaren behin-behineko zerrenda, abenduaren 16an jakingo dela aurreikusita dago, etxebizitzaren gaikako atarian eta Nasuvinsaren iragarki-taulan (San Jorge 8, beheka). Une horretan 10 eguneko epe bat hasiko da alegazioak egiteko, eta, haren ostean, behin



Babestutako etxebizitzaren sustapen bat.

betiko zerrenda onartuko da. Handik aurrera, esleipendunak babestutako etxebizitza onartu beharko du eskatutako dokumentazioa emanaz, edo hari uko egingo dio.